

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

LEHENDAKARITZA

2635

EBAZPENA, 2025eko ekainaren 3koa, Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen idazkari nagusiarena, Lehendakaritzan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia bete gabe uzten duena.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 102.2.d) artikuluan baita Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 388/2024 Dekretuaren 9.2 g) artikuluan ere agindutakoarekin bat etorritik, eta Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen idazkari nagusiaren 2024ko abenduaren 4an emandako ebazpenak (Lehendakaritzako lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzen duenak) hirugarren oinarrian ezarritakoaren arabera (2024ko abenduaren 19ko EHAA, 246 zk.), eta Enplegu Publikoaren Zuzendaritzak aldeko txostena eman ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Bete gabe uztea goi-kargudunaren idazkariaren lanpostu hau: Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen Idazkaritza Nagusia, 520010 zenbakiko kodea, 218 dotazioa.

Bigarrena.— Ebazpen honek amaiera emango dio administrazio-bideari, eta beronen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organo berari hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkeztu ahal izango zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari bi hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 3a.

Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen idazkari nagusia,
MIKEL IRIONDO BILBAO.